

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektuak behar bezala funtziona dezan, egin behar duguna da setatsuak izatea eta gure artean koordinatuta egotea, lan egitea errazagoa izan dadin.

Zorionez, aplikazio hau sortzen ari garen hiru pertsonak oso bateragarriak gara, eta gutako bakoitzak zerbait desberdina ematen dio proiektuari; alde horretatik, zorte handia dugu eta ulermen handia dugula esan daiteke. Gainera, gu hirurok oso langileak eta setatsuak gara.

Kontuan hartu beharreko beste elementu bat da gure aplikazioa pertsona mota guztiek erabiliko dutela jakitearen erantzukizuna, eta, beraz, gure proiektua profil mota guztietara egokitu behar dugula. Hau da, Ekoapp aplikazioa argia eta erabiltzeko erreza izan behar da, adin eta mota guztietako pertsonak erabiliko dutelako.

Guk kooperatiba bat egitea erabaki dugu, erantzukizun mugatua duelako eta denon artean erabakitzen dugulako aplikazioari buruzko gai inportanteenak, iritzi guztiak kontuan hartzen direlako kopuru berdinean, eta hori guretzat da garrantzitsuena, talde-lana.

